

Gure baitan sentitzen ditugun lurrikara horiek, zazpi ipuinetan

'Epizentroa' ipuin-bilduma argitaratu du Nerea Loiolak Ereinen eskutik, helduentzako idatzi duen aurreneko lana

N. AZURMENDI

DONOSTIA. Haurrei zuzendutako 'Harri bat poltsikoan' (2018) eta 'Azken lanhütarra' (2019) argitaratu ondoren, helduen literatura heldu da Nerea Loiola Pikaza (Deba, 1985), aurrekoetan bezala Erein argitaletxearen eskutik. Urratsa 'Epizentroa' ipuin-bildu-

marekin egin du. Inazio Mujika Iraola editorearen ustez, «Nerea oso ona da situazioak eraikitzen eta amildegia deskribatzen. Hondaleen aurrean erabakiak hartzea oso inportantea da, eta hor jartzten ditu bere pertsonaiak».

Idazlearen ahots antzemangarria eta bere idazkera «lotsagabe, fresko eta askea» dira, editorearen hitzetan, liburuko zazpi ipuinak lotzen dituzten hariak. Idazlearen ikuspegiaren arabera, ordea, zeharo burujabeak dira, ez dago haien artean batasunik, ez gaien aldetik, ezta egituraren edo estiloaren aldetik ere.

Liburuaren izenburutarako aukeratu duen hitzak, baina, ematen dio guztizkoari oinarri edo estalki amankomun bat. Izenburu horren pean, alegia, idazleak ekarri nahi izan ditu «gure baitan sentitzen ditugun lurrikara desberdinak; haur bat izatean, ez izatean, ezin izatean; harreman baten hasieran, bilakaeran, amaieran; lanez aldatzean...».

Hipozentrotik epizentroa

Lurrikarak «gure baitan gertatzen dira, gure hipozentroan. Leku sakona da, ez da ukigarria, baina ikusi eta nabaritu azalean egiten ditugu, besteen eta gure gorputzetan». Epizentroan, alegia, oso ondo jakin gabe askotan «non, noiz eta nola gertatu den» une jakin batean azaleratzen den sakoneko dardara.

Lotura horiek ez dute ezbaian jartzten ipuinen autonomia. «Ez dut sortu haririk konszienteki, ipuin bakoitzari bere espazioa

eman diot, libre utzi dut. Askatasuna eman nahi izan diet, eta gai desberdin asko sortu dira ez katalogo bat jarri dudalako, idatzi ahal horrela gertatu delako baizik».

Badira «gaiak maiz azaltzen direnak –gurasotasuna, maitasuna...–, baina bereziki harremanetan ezarritako ardatza eta erabakien inguruko aferak» izango lirateke bilduma zeharkatzen duten ildo nagusiak.

Beste bi elementu amankomun ere aipatu zituen Nerea Loiolak: «Logikoa den bezala, ahotsa, eta protagonista denak emakumeak izatea, elkarren artean oso diferentek eta asko nigandik oso

urrun daudenak». Inazio Mujikak esan bazuen amildegia ertzean jarri dituela pertsonaiak, erabakiak hartuz edo hartu beharrean, idazleak ez zuen kontrarik esan esan.

«Gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabakiak gauzartzen diren artean dagoen hori da amildegia. Askotan zailagoa izaten da erabakia gauzatea hartzea baino. Lokatz horietan murgildu ditut pertsonaiak», zehaztu zuen. «Orain lehertu den hau noiz hasi zen dardaratzen, edo orain sentitzen dudan hau zein lurrikaratakoa den» asmatzea ere ez da erraza.

Horixe adierazten du «modu soil baina adierazgarrian» Maddi Zumalabe eta Jon Arangurenekin osatzen duten Asteazkenak Komandoak egin duen azalak, erabakiak hartu behar eta ezin horretan ez baita erraza argitzea enbutuak egiten ote dion enbarazu harriari, edo harriak enbutuari.

EPIZENTROA
NEREA LOIOLA
PIKAZA

Generoa: Ipuinak.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 132.
Salneurria: 15 euro.

